

EROSKI FUNDAZIOAK MARTXAN JARRI DU, ZAZPIGARRENEZ, ELIKADURA ETA OHITURA OSASUNGARRIEI BURUZKO HEZIKETA PROGRAMA

- Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %28,5ek parte hartu dute programan 2013an hasi zenetik
- Espainia guztiko ikastetxeekin lantzen ari dira ekimena, eta helburua da ikasleek garrantzia ematea elikadura orekatuari eta bizimodu osasungarriari
- Ikasturte honetan, tailerren saio didaktikoak berritu dituzte, eta programa indartu dute berrikuste modulu berri batekin eta bisita gehiago antolatuta tokiko beste ekoizle batzuegana
- Era berean, *Imagine Food* errezeta osasungarriei buruzko marrazki-lehiaketa egingo dute beste behin, aurreko urteetan arrakasta handia izan duela ikusita

Elorrio, 2018ko urriaren 26a.-[EROSKI Fundazioak](#), Elikadura Eskolaren bitartez, martxan jarri du, egun hauetan, [Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko VII. Heziketa Programa](#). Helbururik behinena da ikasleak sentsibilizatzea, ohar daitezen zein garrantzitsua den modu orekatuan elikatzea eta bizimodu osasungarria izatea. 2018-2019ko heziketa programan interesatuta dauden ikastetxeek izena eman dezakete, www.escueladealimentacion.es webgunean edo 946 072 841 telefonora deituta.

Espainia osoko Lehen Hezkuntzako 460.000 ikastetxetatik 3.192 ikasle inguruk hartu zuten parte VI. Heziketa Programan, 2017-2018ko ikasturtean. Programa 2013an abiatu zenetik, Espainiako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %28,5ek eman dute izena, eta 3.968 ikastetxetako 869.000 ikaslek parte hartu dute guztira.

"Gure Elikadura Eskolak sentsibilizatu egin nahi ditu Lehen Hezkuntzako haurrak eta haien ingurunea, elikadura orekatua eta ohitura osasungarriak izatearen garrantziaz. Horretarako, metodologia ludiko, parte-hartzaile eta esperimental batean oinarritzen gara, eta jarrera eraikitzaile, arduratsu eta kooperatibo bat sustatzen dugu, taldekako proiektu txikien bitartez, elikaduran eta ohitura osasungarrietan oinarrituta; izan ere, urtez urte emaitza onak izaten ari da, eta erreferentziazko programa bihurtu da", esan du EROSKI Fundazioko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak. *"Aurreko ikasturteari dagokionez, igo egin dira bai ikasle kopurua eta bai ikastetxe kopurua, %143 eta %89 hurrenez hurren. Datu*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

horiek erakusten dute programak balorazio baikorra izan duela; gainera, azken urteetan zazpi bider handitu da partaide kopurua", esan du.

Aurtengo berritasunak

Programa egiteko, Batzorde Zientifiko bat osatu da zenbait arlotako profesionalekin: medikuntza eta pediatria, nutrizioa eta dietetika, psikopedagogia eta pedagogia. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat pentsatuta dago; hamar saio didaktiko ditu, ikasgelan lantzeko, eta tailer praktikoekin osatuta dago. Ikasleek erosketa osasungarria egiten ikasten dute EROSKIren denda batean, eta aukera dute elikagaiak ekoizten dituen nekazari baten etxaldea ikusteko, bertatik bertara ezagutu dezaten janaria nondik datorren. Unicef, WWF, Bihotzaren Espainiako Fundazioa eta Basque Culinary Center kolaboratzaileak dira Elikadura Eskolan, eta heziketa programako edukien zati bat prestatu dute. Saioteko batean, EROSKI aurtun Osakidetzarekin lan egingo du, higiene ohiturak erakusteko tailer batekin.

"Aurten, dendan egiten genituen ohiko tailerrak birpentsatu ditugu, eta lehen baino dibertigarriagoak eta didaktikoagoak egin ditugu. Gainera, beste tailer formatu bat pentsatu dugu dendetarako, 'Ikasgelako chafa' izeneko eta bideo berri bat. Iaz, 1.000 tailer baino gehiago egin zituzten 202 dendatan, eta 20.000 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte", azaldu du Martinez Berriochoak.

Ikasturte honetan, berriz, partaide kopuru hori gainditzea espero dute, eta, Imagine Food errezeta osasungarrien lehiaketa ez ezik —zeinak aurreko bi aldietan arrakasta itzela izan baitu—, beste zenbait berritasun izango dira ikasturte honetan. *"Tailer formatu berriak zabaldu ditugu, eta saio didaktikoak berri; horrez gain, elikagaien tokiko ekoizle kopurua handitu dugu, ikasturtez ikasturte halako arrakasta duten tailerren kopurua handitzeko",* esan du Martinez Berriochoak. *"Horrekin batera, ikasbideak berrikusteko modulu bat sartuko dugu, programaren osagarri; horrela, hiru hilean behin azpimarratuko diegu dieta osasungarriak eta orekatuak nolako garrantzia duen elikatze orduan, eta aldi berean, unitate didaktikoen jarduerak gaurkotuko ditugu",* gaineratu du.

Aitorpena, ohitura osasungarriak sustatzeagatik

EROSKI Fundazioak elikadura osasungarriagoa sustatzeko sortu duen heziketa programak aitorpen ugari izan ditu. Besteren artean, OCARE saria, iaz irabazia, "gizarte zibilari begirako GEK komunikazio kanpainarik onenagatik". [OCAREk, enpresa-erantzukizunaren komunikazioa eta ekintza behatzeko entitateak](#), saritu egin du *Elikadura eta Ohitura Osasungarriei Buruzko Heziketa Programa*; sariarekin aitortu diotenez, GEK komunikazio-ekintzarik onenetako bat izan da 2016an

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Espanian. OCARE sarien helburua da aitortzea zein ekimen eta ekintza izan diren onenak GEK Gizarte Erantzukizun Korporatiboren inguruan.

Heziketa programak aitorpen ugari pilatu ditu; besteren artean, "El Chupete" saria Haur Komunikazioaren Nazioarteko Jaialdian, adingabeekin landutako komunikazioa aitortzeko; NAOS saria, Osasun eta Kontsumo Ministerioak emana, kontsumitzaileen osasunerako egindako ekarpenagatik eta ohitura osasungarriak hedatzeagatik; Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren Gosasun Zigilua; Herritarren Saria Osasunaren eta Bizi Kalitatearen arloan; eta Nutrizioaren Kataluniako Zentroaren Saria.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)